

# TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO **hitza** info

Asteartea, 2012ko urriaren 23a. IX. urtea. 2.420. zenbakia. [tolosaldea.hitza.info](http://tolosaldea.hitza.info)

## Tolosaldean EH Bilduk lortu ditu boto gehien eta EAJ izan da bigarren

Herenegungo Eusko Legebiltzarrerako hauteskunderetan botoa emateko aukera izan zuten eskualdeko 35.869 pertsonetatik, %65,60 joan zen hauteslekuetara

EAJko Bakartxo Tejeria eta Luke Uribe-Etxebarria izan dira eserlekua lortu duten eskualdeko ordezkariak; Tejeria gainera, legebiltzarreko lehendakari izan daiteke **o6-7**



## Bengoetxea eta Barriola, eskualdeko ordezkariak Lau t'erdiko final laurdenetan

Saralegik eta Olaizola I.ak euren partidak galdu dituzte asteburuan, Bengoetxeak Urrutikoetxeari irabazi dio, eta Barriola aurretik zegoen sailkatuta ligaxkarako **o2**

## Joseba Rojo skating eran eta Ane Gorostegi klasikoan, garaile rolleskian

Hernaldeko XII. Rolleski Igoeran lortu dituzte bi tolosarrek garaipenak; guztira 76 lagunek bukatu dute Alpino Uzturrek antolatutako proba, orain arteko kopururik handiena **o2**

**FUNERARIA VASCONGADA**  
EHORZKETAK  
902 402 900  
[www.funerariavascongada.com](http://www.funerariavascongada.com)

TOLOSA  
Kondeko Aldapa, 5  
943 - 67 00 40  
VILLABONA  
Larrea Polg. 34 - 1  
943 - 69 48 73

→ **Murrizketen Abesbatza Lehiaketa.** Azaroaren 1etik 4ra ospatuko da, Tolosan, 44. Abesbatza Lehiaketa. Urteroko moduan sona handiko abesbatzek hartuko dute parte, baina aurten bada berritasunik, izan ere, diru falta dela eta, ez da haurren saiorik izango. Urte asko eta gero, gainera, sarrera eta bonuen prezioak igo dituzte. **o3**

**Kirolak**

↓ **Kirol emaitzak**

**PILOTA**  
**LEHEN MAILAKO LAU T'ERDIKO TXAPELKETA**  
**Saralegi-Retegi Bi** 13-22  
**Olaizola I-Berasaluze VIII** 11-22  
**Bengoetxea VI**  
 Urrutikoetxea 22-7

**BIGARREN MAILAKO LAU T'ERDIKO TXAPELKETA**  
**Olazabal-Apezetxea** 22-5  
 Gorka-Jaunarena 22-9

**ARETO FUTBOLA**  
**HIRUGARREN MAILA**  
**5. jardunaldia**  
**Laskorain-Ibarra** 1-3  
**Tolosala Hirukide**  
 San Jorge Santurtzi 7-4  
 Egintza-Mallabia 5-4

**Sailkapena**  
**1. Ibarra** 15 p  
**3. Tolosala Hirukide** 11 p  
**8. Egintza** 7 p  
**11. Laskorain** 6 p

**FUTBOLA**  
**ERREGIONAL OHOREZKOA**  
**Seigarren jardunaldia**  
**Aretxabaleta-Tolosa CF** 1-1

**Sailkapena**  
 1. Hernani 18 p  
 3. Tolosa 11 p

**AIZKORA**  
**URREZKO AIZKOLARIEN KOPA**  
 1. Aitzol Atutxa 16:29  
 2. Floren Nazabal 17:04  
 3. Unai Otaño 21:53

**SASKIBALOA**  
**Maila nagusia**  
**Laugarren jardunaldia**  
**Bide Bide Donosti** 57  
 Atletico San Sebastian 58

**Sailkapena**  
 1. Tabirako Baque 4-0  
 6. Bide Bide Donosti 2-2

**ROLLESKI**  
**XII. HERNIALDEKO ROLLESKI IGOERA**  
**Skating**  
**1. Joseba Rojo**  
 1. Uxue Loizu

**Klasikoan**  
 1. Txomin Eskarmendi  
 1. Ane Gorostegi

# Bengoetxeak egin du bakarrik aurrera Lau t'erdikoan

Saralegik eta Olaizola I.ak galdu egin dituzte euren partidak; bigarren mailan, Olazabal irabazle eta Jaunarena galtzaile

**I. Garcia Landa**

Lehen mailako Lau t'erdiko txapelketan zehaztuta geratu dira final laurdenetako ligaxkan parte hartuko duten pilotariak. Dagoneko sailkatuta zegoen Abel Barriola, eta eskualdetik sailkapena lortu duen beste pilotaria Bengoetxea VI.a izan da, asteburuan Urrutikoetxeari irabazi ondoren. Saralegik eta Olaizola I.ak euren partidak galdu dituzte.

Bengoetxeak bere nagusitasuna baliatu zuen garaipena eskuratzeko eta zazpi tantotan utzi

zuen Urrutikoetxea. Partida borrokatua izan zen, eta Urrutikoetxeak bere ahalmen guztiak erakutsi zituen kantxan, baina leitzarrak, airezko joko ikusgarriarekin, irabazi zuen partida. Olaizolak ezin izan zeun Berasaluzeren aurka irabazi, bizkaitarrak sakez min handia egin baitzuen eta Leitzan bizi den pilotariari 11-22 irabazi zion. Bere aldetik, Saralegik Beotibarren galdu zuen Retegi Biren aurka, 13-22, partidaren hasieran aldeko markagailua izan bazuen ere.

**Emaitza gazi-gozoak**

Bigarren mailakoan, eskualdeko bi ordezkari daude final laurdeneko ligaxkan. Olazabal aresoarrak Apezetxea menderatu zuen, 22-5 irabaziz Beotibar frontoian. Jaunarena leitzarrak, bere aldetik, 22-9 galdu zuen Gorkaren aurka.

# Urrezko Aizkolarien Kopan, Otaño hirugarren

**I. Garcia Landa** Ibarra

Unai Otaño ibartarrak ezin izan zuen txapela jantzi Urrezko Aizkolarien Kopan. Atutxa II.a eta Floren Nazabal zituen aurkari eta hirugarren geratu zen Urrezko Aizkolarien aurtengo azken txapelketan. Ibartarrak binakako txapelketa irabazi zuen eta Koparen finalerako sailkatu zen, baina ezin izan zion aurre egin finaleko beste bi aurkarietara.

Atutxa II.ak eman zuen ezustekoa, Nazabal faboritoari irabazi baitzion. Nazabal haserre azaldu zen bukaeran, azken proban izan zituen egurren egoerak ordura arte lortutako abantaila galdurazi baitzion.

# Ibarrak lortu du garaipena Laskorainen aurkako derbian

**Erredakzioa**

Behin ere ez zuten jokatu partida ofizial bat Lauburu Ibarrak eta Laskorain taldeak areto futbole-an. Orain hirugarren mailan daude biak eta Tolosan jokatu zuten beraien arteko derbia. Ibarrak eskuratu zuen garaipena, 1-3 irabaziz, baina azken unera arte ez zen erabaki norgehiagoka. Ibarra 1-2 irabazten zihoan eta Laskorainek atezain-jokalaria atera zuen berdinketa lortzeko asmoz, baina azkenean beste gol bat jaso zuen.

Bere aldetik, maila berdinean, Tolosala Hirukide talde tolosarrak eta Egintza talde billabonarrak euren partidak irabazi dituzte.

↓ **Iragarki laburrak**

**LAN ESKAINTZAK**

**Mantenerako pertsonala.** Obra publiko eta zerbitzu orokorretarako langile bila gabilta. Interesatuak, deitu 654 051778 telefono zenbakira.  
**Gidariak.** B gida baimenetik hasita, dokumentazio publikoa banatzeko langile bila gabilta. Interesatuak, deitu 654 051778 telefono zenbakira.



Skating erako parte hartzaileak, larunbateko proban. I. TERRADILLOS

# Joseba Rojo eta Ane Gorostegi, rolleskian irabazle

XII. Hernialde Rolleski Igoeran lortu dute bi tolosarrek garaipena; aurtengoa inoizko parte hartzaileena izan da

**Iñigo Terradillos** Hernialde

Alpino Uzturre elkarteak antolatuta, XII. Hernialdeko Rolleski Igoera izan zen larunbatean. Skating eran Joseba Rojok irabazi zuen, 11:10eko denborarekin. Bederatzi segundora, bere anaia Imanol iritsi zen Hernialdeko helmugara, gainerako parte hartzaileei alde handia ateraz. Emakumezkoetan, Uharteko (Nafarroa) Uxue Loizu izan zen lehena.

Era klasikoan, berriz, mutiletan Txomin Eskarmendi errenteriarra izan zen lehena, eta Oier Goñi agoiztarra (Nafarroa) bigarren. Nesketan, Ane Gorostegi tolosarra izan zen garaila. Infantilek, hau da, 14 urte bitartekoek

ere hartu zuten parte klasiko eran. Hemen, Imanol Ziriza eta Edurne Garaioa izan ziren azkarrenak, biak Nafarroako Uharteko elkarteak.

Probaren ostean, pixka bat gozatu eta indar berritzeko askari goxoa hartu zuten parte hartzaile guztiak.

Alpino Uzturre elkarteak kideak oso pozik azaldu ziren aurtengo probak izandako harrerarekin, izan ere, euria egin arren, inoizko parte hartzaileena izan zen. 90 lagun zeuden izena emanda, eta horietatik 76 iritsi ziren helmugara. Gipuzkoatik eta Nafarroatik etorritakoak izan ziren gehienak, baina baziren baita Arabakoak ere, eta baita Espainiatik etorriak ere, Aragoi edota Kantabriatik, hain zuzen.

Hernialdeko Rolleski Igoera Euskal Herriko Ligarako puntugarria da. Hain zuzen ere, datorren larunbatean bukatuko da liga, Oiarzunen jokatuko duten probarekin.

# Karrerak ez du amaitu Reunion irlako ultratraila

**I. Garcia Landa** Amezketan

Iker Karrerak ezin izan zuen Reunion irlako Eroen Diagonala ultratrail lasterketa amaitu. Belau-neko min batek eragotzi zion lasterketan aurrera egitea. Proba utzi aurretik bere taldekide Kilian Jornetekin batera egin zituen 100 kilometro inguru. Atsedena hartu ondoren aurrera egitea erabaki zuen korrikalari amezketarrak, baina azkenean 136 kilometroan utzi zuen proba. Kontrol gune batean gelditu zuen eta Nerea Martinez euskaldunaren, emakumezkoetan bigarrena amaitu zuen lasterkariaren, zain

gelditu zen animoak emateko. Gizezkoetan Kilian Jornet kataluniarrak irabazi zuen proba.

Hain justu, Karrerak eskerrak eman dizkio Jorneti proban erakutsitako «gizatasun eta esku zabaltasunagatik». Karrerak azaldu duenez, Jorneti zuzenduz, «hondoratu nengoenean, lehen tasuna eman zion nire osasunari. Ez zen egoeraz aprobeztatu, gehienek egin izango zuten moduan. Jendea bere garaipenarekin, probaren kilometroekin eta maldekun, egindako denborarekin geratuko da... baina ez dute inajinatu ere egingo eman duen erakustaldia».

**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



Aurtengo abesbatza lehiaketa Topic zentroan aurkeztu zuten, pasa den ostiralean. I. URKIZU

## 44. Abesbatza Lehiaketak ez du haurren saiorik izango, lehen aldiz

Azaroaren 1etik 4ra bitarte, hamabi herrialdeetako abesbatzak izango dira lehiaketa

**Itzea Urkizu** Tolosa

Datorren azaroaren 1ean hasiko da 44. Tolosako Abesbatza Lehiaketa, eta krisiak markatuko du aurtengoa; haur abesbatzen lehiaketarik ez da izango, Tolosako Ekinbide Etxeko antolatzaileek ezin izan baitiote aurre egin gastuari.

Pasa den ostiralean egindako aurkezpenean, Ana Arretxe TEEko lehendakariak, gaztetxoenen saioa lehiaketatik kentzearena «oso erabaki gogorra» izan dela azpimarratu zuen: «Gainera, arrakastarik handiena duen saioa izaten da urtero, eta triste gaude honegatik».

Arretxerekin batera, Kutxa Gizarke Ekintzen ordezkari Xabier Mendarte, Tolosako alkate Ibai Iriarte, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailburua Blanca Urgell eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Diputatua den Ikerne Badiola izan ziren agerraldian.

Ana Arretxek, diru laguntzen jaitziera lehiaketaren antolaketan baldintzatu duela azaldu zuen: «%28 jaitzi dira diru laguntzak, eta haurren lehiaketa ezin izan dugu aurrera eramane». Hala ere, datorren urtean ahal den gutziera egingo dutela azaldu zuen, berriro ere haurren saila berreskuratu

tzeko; batetik, arrakasta izaten du, eta bestetik, antolatzaileentzat berebiziko garrantzia dute haurren abesbatzek, «etorkizuna direlako».

Bide beretik, eta urte asko eta gero lehen aldiz, sarrera eta bonuen prezioa ere igo egin behar izan dute antolatzaileek. Horrela beraz, helduek 12 euro ordaindu beharko dute saio bakoitzeko sarrerera, eta haurrek 5 euro; amaierako saiorako sarrerak, berriz, 16 eta 9 euro ordaindu behar dira, hurrenez hurren. Tolosako Ekinbide Etxean, Kutxanet-en plataformetan nahiz Leidorreko lehiatilan salgai izango dira.

Lehiaketako saioak datorren astean izango diren arren, Gipuzkoako Abesbatzen Federazioak antolatuta, abesbatzen topaketa izan zen pasa den larunbatean. Lehiaketaren atarikoia izan zen San Frantzisko elizako kontzertua, eta era berean, Gipuzkoako abesbatzen arteko harremanak sustatzeko helburuz prestatu zuten emanaldia. Horrela beraz, Tolosako Hodeiertz, Irungo Ametsa eta Zumaiako San Pedro abesbatzak aritu ziren kantuan, Gorka Aierberen gidaritzapean.

Azaroaren 1etik aurrera, guztira, 12 herrialdeetako abeslariak izango dira Tolosan, Indonesiatik, Erresuma Batutik, Filipinetatik, Venezuelatik, Letoniatik, Irlandatik, Esloveniatic, Ukrainiatik, Frantziatic, Finlandiatik, Alemaniatic eta AEBetatik etorriak, hain zuten.

Horrela, hamalau abesbatzak parte hartuko dute lehiaketako

sailetan; zazpi ahots nahasiengatik izango dira, eta hamar ahots taldeak.

Ohi bezala, musika sakratua eta profanoari dagozkion saioak Santa Klara komentuko elizan izango dira, eta folklorea eta polifoniarik ariko diren abesbatzek, berriz, Leidorreko oholtza izango dute lanerako leku.

### Nazioarteko epaileak

Haur eta gaztetxoengatik lehiaketa egin ezin izan den arren, TEEk ez du Tolosako Abesbatza Lehiaketako abesbatzen maila aldatu.

Hauen lana epaitzeko, beraz, musikaren esparruko, eta, bereziki, abesbatzen munduko nazioarteko profesionalak bildu dituzte

aurten ere. Brady Allred estatubatuarra, Lorenzo Donati Italiarra, Naomi Faran israeldarra, Robert Sund suediarra, Victor Smirnov errusiarra eta Fritz ter Wey alemaniarra izango dira, beraz, epamahaikideak, Javier Busto hondarribitarra epaimahaiko lehendakari dutela.

Beste askoren artean, antolatzaileek behartutako obrak prestatu beharko dituzte abesbatza parte hartzaileek. Horrela beraz, Lorenzo Ondarra zendu berriaren *Pater Noster* izango dute obra behartua musika sakratuan nahiz profanoan. Folklore eta polifonia sailetan, berriz, Javi Bustoren *Euskal jokoak* lana interpretatu beharko dute.

### ↓ Egitaraua

#### AZAROAK 1, OSTEGUNA

■ **11:30.** Santa Klara Elizan erlijio musikaren sailean abesbatza lehiaketan parte hartzen duten ahots taldeen emanaldia.

■ **16:00.** Leidor antzokian, folklore eta polifonia sailetan parte hartzen duten abesbatzen kantaldia.

■ **19:30.** Leidor antzokian, folklore eta polifonia sailetan parte hartzen duten abesbatzen saioa.

#### AZAROAK 2, OSTIRALA

■ **16:00.** Leidor antzokian, musika profanoaren sailean abesbatza lehiaketan parte hartzen

duen taldeen emanaldia izango da.

■ **19:30.** Leidor antzokian, folklore eta polifonia sailetan abesbatza lehiaketan parte hartzen duten taldeen saioa.

#### AZAROAK 3, LARUNBATA

■ **11:30.** Santa Klara elizan erlijio musikaren sailean lehiaketan parte hartzen duten ahots taldeen emanaldia.

■ **16:00.** Leidor aretoan, musika profano sailean parte hartzen duten abesbatzen ekitaldia.

■ **21:00.** Tolosako Udalaren eskutik, harrera ofiziala egingo dute abesbatzetako zuzendariak eta antolatzaileek gonbidatu

Aurtengo abesbatza lehiaketako kartelari dagokionez, berriz, aipatzekoa da Iñaki Epelde tolosarra izan dela egilea.

### Kultura bizirik duen herria

Abesbatza lehiaketako aurkezpenean parte hartu zuten ordezkari guztiek bat egin zuten, Tolosako kulturaren bizitasuna nabarmentzean.

Horrela, Ikerne Badiolak abesbatza lehiaketak Tolosatik kanpo duen oihartzuna izan zuen hizpide: «TEEren kultur eraginkortasuna handia izan da, eta 1969an hasitako bide hura, erreferentzia bilakatu da Gipuzkoan, Euskal Herrian eta atzerrian». Izan ere, lehiaketarako bidaia probestuz, abesbatzek hainbat emanaldi eskaintzen dituzte Gipuzkoan, Bizkaian, Nafarroan, Araban nahiz Kantabriaren barrera.

### Hamabi herrialdeetako hamalau abesbatzak parte hartuko dute lehiaketan

### 'Pater Noster' eta 'Euskal Jokoak' obrak izango dira nahitaez abestu beharrekoak

Bide berari eutsi zion Blanca Urgell kultura sailburuak, abesbatza lehiaketaren 44 urteak goraituz: «Ez da erraza kultur giro hau edonon aurkitzea, eta Tolosak eredu izan behar du. Gainera, nazioarteko etiketa hori izatea ere ez da erraza eta garrantzitsua izango da, Tolosako Abesbatza Lehiaketa, Donostia 2016ko zutabeetako bat izatean».

Azkenik, Ibai Iriarte alkateak, lehiaketaren nazioartekotasuna nabarmendu zuen, kulturen arteko uztartzeari begira: «Hizkuntza, kultura nahiz tradizio desberdinak hemen izango dira, eta musikak bidezidor berera eramango gaitu». Horrela beraz, eta 44. urtemuga azpimarratuz, eskerrak eman zizkien antolatzaileei.

tutako nazioarteko hainbat pertsoneri.


■ **21:30-00:00.** Abesbatzen dantzaldia Beotibar pilotalekuan, Udaberri dantza taldearekin. Epaimahaia erabakia ezagutaraziko dute.

#### AZAROAK 4, IGANDEA

■ **11:30.** Leidor antzokian, lehiaketako amaiera saioa izango da, eta sari banaketa ere bai. *Agur Jaunak* abestuz amaituko dute saioa.

■ **Jarraian.** Abesbatzen bazkaria Zerkausian.


■ **19:00.** San Frantzisko elizan, AEBetako The Rose Ensemble abesbatzaren kontzertua.



Tolosaldeko San Esteban auzoan gaztetuentzat jolasak izan zituzten, helduek musean ari ziren bitartean. Auzoaren izena ere margotu zuten horma batean, Baxakoekin. <



Auzotar ugari elkartu zen Ugane auzoan eguraldiak lagundu ez arren. Jatekoa eta edatekoa izan zuten eguerdian, eta giroa bertsoariak alaitu zuten. <



Ibarako Azkue auzoan estreinaldiak ospatu dituzte jaiak. Bazkarian elkartu ziren, eta ondoren gazteak jolasean aritu ziren: margotzen, eskulanak egiten, dantzatzen. <

## Auzoetako festak europian igaro dira

**Iñigo Terradillos** Tolosa / bara

Ruñia traba izan arren, festa giroa izan zen nagusi asteburuan jaiak ospatu zituzten Tolosa eta Ibarako auzoetan. San Esteban eta Ugane auzoetan, eta Azkuen, hain zuzen.

Tolosaldeko San Esteban auzoan,

auzoko jaien moduan ospatzen duten kultur saioa izan dute azken egunetan, eta berarengan eman zituzten amasiera. Ekitaldiak betetako egina izan zuten larunbata. Jende ugari gerturatu zen arratsaldean auzora, eta batzuk elkarrean musean aritu ziren bitartean, gazteboenak hainbat jo-

lasetan aritu ziren, zaku lesterkean edo jokoa bilzen, besietan arren. Bestalde, Ferialekuaren kanpoaldean, horma pintatzen aritu ziren gazteak Baxako kideekin. Ugane auzoan ere jai eguna izan zen larunbatekoa. Eguerdian jende ugari elkartu zen Her-

naniko bertsoariak giro tuririko poteoan. Bazkariaren ostean, mus txapelketa eta partituentzat jokoak izan zituzten, eta gauean, afarian elkartu ziren berriro auzotarrek, musika gogotzeko aukera ere izan zuten. Bestalde, Ibarako Azkue auzoan festak ospatu dituzte aurten le-

hen aldiz. Auzoaren antolatutako jaiak izan dira, eta askotariko ekitaldiak izan zituzten larunbatean, egun osoan. Bazkarian, esaterako, aurreikuspenak gaitunditza, 200 lagun inguru elkartu ziren. Bazkaloetan, haurrek jolasean aritu ziren, eta kontzertu ere izan zuten.

## Mikologia azoka, euritsua, baina arrakastatsua

Jende ugari izan da Kasino elkarteak antolatutako Mikologia jardunaldiaren barruan eginiko azokan

**I. Terradillos** Tolosa

Perretxiokoak ikusi, zein diren jangarriak eta zein ez ikasi eta horiek dastatzeko aukera izan zen larunbatean, Tolosaldeko Triangeloko Kasino elkarteak antolatuta Mikologia jardunaldiak izan dira aste osoan, eta larunbatean eginiko azokarekin, eta pintxoaren dastaketarekin eman zituzten bukaera.

Bi gunetan zegoen banatuta Triangeloko Batean, Kasino elkarteak bukatu zituen Tolosaldeko ikastetxeko gazteek astean zehar bildutako perretxiokoak jarri zituzten ikusgai. 200 espezie inguru salikatu zituzten, bakoitzaren ezagueriak adieraziz. Ikusmin handia puztu zuen erakusketak, eta jendea erruz gerturatu zen perretxiokoak ikustera.

Jatekoak eta edatekoak ere jende ugari erakarri ohi dute, eta eguraldiak batere lagundu ez arren, larunbatean bigarren guzera jende asko gerturatu zen hainbat jatekoetako salaketarak perretxiokoekin prestatutako pintxoak dastatzera. Hurrigozo, Dolares, Kuko, Martinez, Larrea, Olenzo, Iriarte, Solana 4, Peñakal fundazioak, Iargi, Kasino, Botari eta Astelehena jatekoak hartu zuten parte, eta zein baino zein plater elaboratuak eskaini zituzten. Hojaldeak, piperrak, pistoak, brotxetak, nahasturak, krepek... guztiak perretxioko osagai bezala hartuta. Euro batean eskaini zituzten, eta herritar askok hartu zuten pintxoak sagardoz lagundurik.



200 perretxioko mota salikatu zituzten Kasino elkarteak kideek, Aranzadioren laguntzarekin. Perretxiokoak erosteko aukera ere izan zen. <



Jatekoetako sukaldariak pintxo ugari prestatu zituzten, eta eskara handia izan zen postu gutietan. <

**Irudia** Tolosa

## UDABERRIK LAN BERRIA AURKEZTU DU

Tolosaldeko Udaberri dantza taldeak bordondantza inguru-ko DVDa aurkeztu zuen larunbatean. Taldearen 55. urteurrenaren barnean egin dute Egun batez 25 izenburua daraman lana. Bada, Tolosaldeko udalbatza batzar arretan erakutsi zuten, eta jende ugari gerturatu zen hura ikustera. Ondoren, dantza taldeko kideek triki potes egin zuten, eta amaitu ostean, 90 lagun inguru elkartu ziren afarian. <



**sarrerak**

**HITZAK harpidedunentzat 2 sarrera ditu**

Urtak 28 - Ipadunak 1215  
Donostiako Iruñean

**LAGUN ARO GBC**  
Mac Croc Fuenlabrada  
saskibaloia partida

Zozketan parte hartzeko detu osteguna 14:30ak baino lehen **943 60 50 95** telefono zenbakian.

**Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeak** →



# EH Bildu izan da bozkatuena, eskualdean

Koalizio abertzaleak 10.630 boto lortu ditu eta EAJ alderdia izan da bigarren 8.137 botorekin

**Rebeka Calvo**

10.630 boto jasota, EH Bildu izan da Tolosaldean babes gehien izan duen alderdia. EAJ izan da bigarren alderdia, 8.137 botorekin. Hirugarren PSE-EE izan da 2.238 botorekin eta laugarren alderdia PP 916 botorekin.

Orain lau urteko hauteskundeetan alderdien eskaintza bestelakoa izan zen, izan ere, ezker abertzalearen D3M alderdia legez kanpo zegoen, baina hala ere, 4.784 boto izan zituen. Konparazio bat egin ahal izateko azken kopuru honi EH Bilduren barruan dauden Aralar eta EAren botoak batu behar zaizkio, emaitza 8.338 delarik. Herenegun, beraz, gorakada izan zuen EH Bilduk, 2.292 boto gehiago, hain zuzen.


Bigarren indarrari erreparatzuz gero, EAJ, 2009an 8.198 boto izan zituen, lehen indarra izan zelarik 2009ko hauteskundeetan eskualdean. Herenegun 8.137 boto jaso zituen, eta beraz, boto kopurua mantendu duela esan daiteke, 61 bozka gutxiago baititu soilik.

Beste konparaziorik ere egin daiteke; 2011ko Batzar Nagusietako hauteskundeena. Orduan Tolosaldeko alderdirik bozkatuena Bildu izan zen (11.923) eta EAJ bigarren (6.511). EH Bildu eta Bilduren arteko aldea, beraz, 1.293 boto gutxiagokoa da, eta EAJk 1.626 boto gehiago.

HERRIA	ERROLDA	ABSTENTZIOA	BALIOGABEAK	EAJ	EH BILDU	D3M*	ARALAR	EA	PSE-EE	PP	EZKER ANITZA	EZKER BATUA	UPyD
Abaltzisketa	244 (242)	% 29,51 (%42,56)	1 (37)	78 (65)	89	(37)	(18)	(8)	1 (0)	1 (1)	0	1 (6)	0
Aduna	345 (310)	% 28,28 (%37,74)	4 (74)	58 (59)	154	(74)	(36)	(11)	9 (5)	4 (2)	1	1 (5)	1
Albiztur	255 (255)	% 41,57 (%43,53)	0 (10)	78 (85)	55	(10)	(22)	(10)	8 (10)	0 (1)	0	2	0
Alegia	1.325 (1.356)	% 33,51 (%38,42)	2 (209)	278 (339)	483	(209)	(110)	(55)	54 (71)	17 (26)	14	17 (19)	1
Alkiza	284 (277)	% 37,32 (%42,60)	3 (19)	75 (95)	91	(19)	(33)	(3)	3	0	2	2 (3)	0 (1)
Altzo	299 (300)	% 30,43 (%41,00)	2 (61)	70 (66)	129	(61)	(33)	(9)	1 (4)	0 (1)	0	0	1
Amezketza	755 (765)	% 38,42 (%40,78)	0 (124)	145 (199)	295	(124)	(60)	(38)	10 (6)	11 (9)	6	4 (8)	1
Anoeta	1.395 (1.400)	% 28,75 (%36,36)	6 (268)	291 (282)	473	(268)	(93)	(46)	107 (127)	45 (47)	18	17 (19)	2 (1)
Asteasu	1.108 (1.119)	% 38,63 (%42,90)	0 (180)	208 (228)	389	(180)	(70)	(103)	44 (24)	15 (14)	9	7 (16)	0
Baliarrain	103 (87)	% 42,72 (%36,78)	0 (29)	9 (19)	48	(29)	(5)	(1)	0	0	0	0	0
Belautza	214 (240)	% 44,86 (%50,00)	0 (31)	41 (54)	67	(31)	(16)	(5)	5 (9)	3 (3)	0	0 (1)	0 (1)
Berastegi	836 (818)	% 34,69 (%37,65)	4 (92)	204 (278)	292	(92)	(58)	(42)	22 (17)	8 (5)	0	5 (8)	0
Berrobi	445 (464)	% 37,08 (%40,73)	0 (65)	67 (120)	175	(65)	(30)	(5)	11 (25)	8 (9)	4	7 (16)	1 (2)
Bidegoian	397 (382)	% 36,27 (%42,15)	1 (43)	74 (99)	153	(43)	(27)	(31)	2 (6)	9 (8)	2	6 (1)	1
Elduain	181 (188)	% 33,15 (%34,57)	0 (55)	44 (48)	72	(55)	(8)	(5)	1 (3)	1	1	0 (2)	0
Gaztelu	138 (137)	% 23,91 (%32,85)	4 (39)	31 (36)	65	(39)	(12)	(1)	2 (3)	0 (1)	0	0	0
Hernalde	277 (275)	% 43,68 (%47,27)	0 (29)	59 (73)	84	(29)	(17)	(8)	3 (6)	1 (3)	1	0 (4)	1 (2)
Ibarra	3.352 (3.480)	% 37,44 (%41,87)	7 (454)	638 (657)	905	(454)	(214)	(108)	287 (401)	89 (98)	45	41 (49)	12 (10)
Ikaztegieta	367 (353)	% 32,70 (%37,11)	0 (84)	79 (91)	142	(84)	(21)	(3)	13 (12)	3 (4)	2	0 (2)	0
Irura	1.159 (1.093)	% 32,01 (%39,43)	4 (142)	283 (273)	339	(142)	(80)	(36)	69 (83)	25 (22)	12	13 (10)	12 (2)
Larraul	174 (179)	% 36,78 (%44,13)	0 (34)	23 (33)	72	(34)	(15)	(6)	6 (7)	1	1	2 (2)	0
Leaburu	282 (310)	% 28,72 (%36,13)	2 (93)	67 (80)	127	(93)	(14)	(5)	0 (2)	3 (3)	0	0	0
Lizartza	465 (498)	% 24,73 (%30,72)	0 (205)	67 (88)	262	(205)	(22)	(7)	1 (3)	9 (13)	4	0 (2)	0
Orendain	139 (151)	% 23,02 (%33,11)	0 (38)	32 (39)	70	(38)	(14)	(9)	1	0	0	0 (1)	0
Orexa	89 (95)	% 10,11 (%15,79)	2 (70)	2 (5)	75	(70)	(1)	(0)	0	0	0	0	0
Tolosa	14.599 (14.385)	% 33,76 (%39,49)	46 (1.364)	3.780 (3.457)	3.661	(1.364)	(972)	(457)	1.051 (1.439)	465 (577)	186	120 (259)	39 (49)
Villabona	4.397 (4.506)	% 35,96 (%41,57)	14 (628)	917 (888)	1.224	(628)	(275)	(102)	338 (452)	113 (150)	69	28 (61)	17 (24)
Zizurkil	2.245 (2.183)	% 35,86 (%40,59)	7 (308)	439 (442)	639	(308)	(111)	(53)	189 (267)	58 (59)	34	16 (33)	9 (8)
GUZTIRA	35.869 (35.848)	% 34,4 (%38,97)	109 (4.785)	8.137 (8.198)	10.630	(4.784)	(2.387)	(1.167)	2.238 (2.982)	916 (1.056)	411	289 (527)	97 (100)

(...) 2009ko emaitzak.

\* Boto baliogabeak hartu dira erreferentzia gisa.



## Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeak →



# Tejeria eta Uribe-Etxebarria dira eserlekua lortu duten eskualdeko ordezkariak

EAJko bi kidek eserlekua dute legebiltzarrean; EH Bilduko Lorea Agirrek ez du lortu

## Eneritz Maiz

Nahiz eta Tolosaldean EH Bildu izan bozkatuena, EAJk irabazi ditu Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeak. EAJk 27 eserleku eskuratu ditu guztira, eta EH Bilduk 21. Bi alderdiek, bedera-

tzina eserleku eskuratu dituzte Gipuzkoan.

Hastear den legegintzaldi berrian, Tolosaldeko bi ordezkari izango dira, eta biak EAJ alderdiekoak izango dira; Bakartxo Tejeria larrauldarra eta Luke Uribe-Etxebarria asteasuarra.

EH Bilduko Lorea Agirre alkizarrak, ordea, ez du lortu legebiltzarrerako eserlekua. Zerrendan hamargarren postuan zihotan, eta lehen bederatzia baino ez dira izango Gasteizen.

PSE-EEk 16 eserleku izango ditu, eta horietatik bost dira gi-

puzkoarrak. PP alderdiak, aldiz, 10 eserleku izango ditu, bi ordezkari gipuzkoarrekin. Bi alderdi hauek ere ez dute eskualdeko ordezkari izango Eusko Legebiltzarrean.

Eskualdeko ordezkariak, oro har, gustura azaldu dira lortu dituzten emaitzekin.

Egoera ekonomia izan dute hizpide gehienek, eta hauteskunde hauetan EH Bildu alderdia sartzean, abertzaletasunak gora egin duela nabarmendu dute politikariek.

•tolosaldean@hitza.info

## Bakartxo Tejeria • EAJko hautagaia

# «Denborarik galdu gabe, lanean hasi behar dugu»

## E. Maiz Larraul

Bakartxo Tejeria (Larraul, 1971), EAJren zerrendako bigarren hautagaia da, eta Legebiltzarreko lehendakaria izango da ziurrenik. Hauteskundeen biharamunean gustura eta lanari ekiteko prest agertu da. Eskerrak eman nahi izan dizkie beraiengan konfiantza izan duten guztiei.

### Hauteskundeen biharamunean zein balorazio egiten duzue?

Gure balorazioa oso positiboa da. Herriak bere hitza eman du, eta hitz hori gure aldekoa izan da. Hiru lurraldeetan ondo ibili gara, eta herritarrek, hemendik aurrera lanean hasteko esan digute. Bizi dugun egoera txar honetatik lehenbailehen atera gaitezen.

### Zer nabarmenduko zenuke?

Hurrengo legebiltzarrean, alderdi guztiak egoteaz gain, gehiengo abertzale batez osatua izango da. Hori garrantzitsua da. Alderdi abertzaleek gorakada izan dute, eta indartsu daude. Abertzaletasunaren aurka jotzeko akordio hura bertan behera geratu da, eta hori azpimarratzekoa da.

### Zer suposatuko du horrek hemendik aurrera?

Ez dakit zer suposatuko duen. Guztiok gaude, eta gauzak gaizki daude. Erabakiak guztien artean hartu beharko dira, eta guk kanpaina guztian defendatu dugu akordioa nahi ditugula. Guztiakin nahi ditugu akordioak, eta ez bakarrik ekonomian edota politikan, alor guztietan. Benetan Euskadi zulo honetatik atera nahi badugu guztien beharra beharrezkoa da. Denon artean, ea gaitasun nahikoa dugun herri honek behar dituen akordioetara iristeko. Horretan saiatu beharko



I. URKIZU

gara. Emaitzak emaitza edo botoak boto, herriak aurrera ateratzea da nahi du.

### Emaitzak ikusita Legebiltzarreko lehendakaria izan zaitezke. Nola hartuko duzu kargu berria?

Emaitzen arabera horrela izango dela dirudi. Ilusio eta erantzukizun handiarekin hartuko dut kargua. Ahalik eta ondoen egin saiatuko naiz. Aurrekoek egin dute, eta aurrekoek bezain ondo edota ahal badut hobeto egitea gustatuko litzaidake. Jendea harro egon dadin, saiatuko naiz ahalik eta ondoen eginen.

### Lanean hasteko prest?

Ezin dugu denborarik galdu, eta lehenbailen hasi behar gara lanean, hori da eta herriak eskatu diguna.

### Lau urte dituzue aurretik.

Gure lehenasuna krisitik ateratzea da. Jende asko benetan gaizki pasatzen ari da, eta ekonomia aktibatu beharra dago. Poliki-poliki berpiztu beharko da. Bakea eta elkarbizitza lortzea izango da. Herri honek beti amestu duen bakea inoiz baino gertuago dago. Gure hirugarren ardatza, Euskadi nazio European izango da.

## ↓ Erreakzioak



## Lorea Agirre

EH Bildu

«Legebiltzarrean 21 laguneko taldea lortu dugu, eta oso esanguratsua da hori. Bigarren indarra izatea lortu dugu; herrialdez herrialde, Bizkaian eta Araban hobetu egin dugu, eta Gipuzkoan mantendu edota pixka bat jaitsi gara. Hogeitabateko lantaldea indartsua da, eta esanguratsua izango da. Erreferentziala izango da hor egingo dugun lana. Ezkerreko alternatiba soberanista sortzea da gure helburua, eta urte eta erdi darabagu hori gorpuzten. Urratsak ematen ari gara, eta alternatiba izateko bidean gaudela uste dut».



## Oscar Renedo

PSE-EE

«Zapore gazi-gozaarekin gelditu gara. Aurreko hauteskundeak egoera ez ohiko batean burutu ziren, eta EH Bildu sartzearekin, jaitsi egin gara, nahiz eta Gipuzkoan emaitzak mantendu ditugun. Tolosan, igoera maila altuan mantentzea lortu dugu, eta hori oso albiste ona izan da. Krisiari aurre egitea tokatu zaigu oro har, eta murrizketa garaian, ongizate estatua maila altuan mantentzea lortu dugu, estatuan ez bezala. Ikusi egin behar ko da zer gertatzen den. Ez dago ezer itxita, aukera guztiak zabalik daude, eta PSE-EEk legebiltzarrean paper garrantzitsua edukiko duela uste dut».



## Pello Atxukarro

PP

«Hiru eserleku galdu ditugu, beraz, ez zait iruditzen jaitsiera oso handia izan denik; Espainian gobernatzen ari garela kontuan hartuta, eta horrek berarekin ekarri dituen erabakiekin: krisi izugarria bizitzen ari gara, eta neurri asko jarri dira martxan, eta emaitzak oraindik ez dira ikusi, denborarik ez delako egon. Ez da horrelako porrotik egon, beraz. EH Bildu indar astunarekin sartu da, eta EAJ ere indartsu agertu da. Beste alderdi batzuk desagertu direla ere ikusi da. Botoa abertzalea izan da, eta hori giroan nabaritzen dela uste dut».

## Hilberriak eta urteurrenak

## ESKELAK

943-65 56 95

tolosaldean@hitza.info

## RAMON GOROSTIDI ZELAIA

Atzo hil zen Donostian, 69 urte zituela.

- Goian bego -



Zurekin eta zuegandik ikasitakoek bizitzan aurrera egiten lagunduko digute. Haren emaztea: Arantza Mujika Casares; seme-alabak: Urko eta Ainhitze, Aolna, Eneko eta Leire; bilobak: Jurgi, Haize eta Aritz; anai-arrebak: Nere (Nikolasen alarguna), Agurtzane eta Mattin, Xanti eta Mari Carmen, Mari Carmen eta Javier, Joxean eta Begoña, Jabier eta Mirtxe, Patxi eta Kristina; laguntzaileak: Gregori, Jorge eta Gina, Marga eta Cati; iloba, lehenaguso eta gainaroko ahaideek otoitz bat eskatzen dizuetue bere alde.

Donostian, 2012ko urriaren 23an

Oharra: Gorputz bella ZORROAGAKO TANATORIOAN aurkitzen da. Hileta elizkizuna familia artean egingo da.



≈ 22°  
≈ 16°

GOIZA	EGUZKIA
ARRATSALDEA	EGUZKIA
BEROENA	23°
HOTZENA	17°

**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak SM  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Rebeka Calvo  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefonoa:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@hitza.info  
**Webgunea:** tolosaldean.hitza.info

**Zuzendariordea:** Eneritz Maiz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.  
**Publizitatea:** 661 678 818 tolosa@bidera.eu  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 033. tolosa@hitza.info  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info  
**Anoeta:** 687 410 022. anoetaldea@hitza.info  
**Ibarraldea:** 687 410 118. ibarraldea@hitza.info  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@hitza.info  
**Leitzaldea:** 687 410 118. leitzaldea@hitza.info

Tolosa Herria  
Hedabideak  
SM-ko kideak:

BERTAKO  
HEDABIDEAK



Galtzaundi  
euskara  
taldea



eta Tolosaldeko  
eta Leitzaldeko  
beste 77 eragile

Hitza-k  
Bai  
Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidegoian, Elduain, Hernialde, Ibarra, Irura, Larraul, Leitza, Lizartza, Orendain, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

## Irudia Alegia



## EURIPEAN OSPATUTAKO EGUNA

Euriak ez zituen kikildu Alegiako Txintxarri abesbatzetako kantariak, eta herri abestiz osatutako emanaldi beroa eskaini zuten, larunbatean. Txintxarri Eguna ospatu zuten txikiek eta helduek, eta zuzendari lana goraiatu zuten. Bi abesbatzek batera ere abestu zituzten abesti batzuk. Herriko

Txintxarri elkartearen egin zuten Txintxarri Eguneako afaria. Bertako bazkideek prestatu zuten otordua, eta abeslariak opari bat eman zieten elkartekoei, aurten 50 urte betetzen dituztela eta. Giro onean, goizaldeko ordu txikiaren amaitu zuten aurtengo Txintxarri Eguna. EDUARDO ARRAYET

### Agenda

#### DEIALDIAK

- **Ibarra.** Ohiko osoko bilkura izango da, gaur, 18:30ean, udaletxe batzar aretoan.
- **Ibarra.** Gazteei zuzendutako etxean esleipen prozesua hasi du udalak, eta azterketa bat egingo dute. Zalantzak argitzeko, gaur, 19:30ean, batzarra egingo dute, kultur etxean.
- **Tolosa.** Amarotz Auzo elkar-tekak Nikaraguaren aldeko merkatu txikia antolatuko du. Ostirala bitarte, 16:00etatik 19:00etara egongo da, Amarozko mediku gelaren ondoko aretoan.
- **Tolosa.** Bizilagunak proiektuaren aurkezpena egingo du Agustín Unzurrunzagak, Bidaarien Txokoa, 19:00etan.

### Farmaziak

#### GAUR

- **Tolosa.** Egunekoa eta gau-eko: Bengoetxea, E. Kale Nagusia, 7. Telefonoa: 943 67 06 48.
- **Lekunberri.** Mendia, M. I. Aralar, kalea, 25. Telefonoa: 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esan- en etairtitzien erantzukizunik.

### Agurrak



#### Urte askoan!

**Inhar Bordagarai Goenaga (Irura).** Atzo bi urte! Zorionak eta muxu goxo asko Alegiako familiaren partetik.

**AGURRAK**  
943-65 56 95  
tolosaldean@hitza.info

urtebetetzeak  
urrezko ezteiak  
ezkontzak  
jaioberriak  
jaunartzeak...

●●● agurrak



## harpidedun izateak badu saria

## zozketa

### 1 Iturrigoxo Jatetxea

Bi laguntzako asteburuko menua



Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: **51**

www.iturrigoxojatetxea.com

### 2 Ostatu Hernialde Jatetxea

Bi laguntzako bazkaria edo afaria



Hernialde  
Tel.: 943 65 24 96

Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: **52**

### 3 Tolosako babarrunak

8 poltsa



www.tolosakobabarrunak.com

Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: **53**

### 4 Donostiako Aquariuma

Bi laguntzako bina sarrera




www.aquariuss.com

Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: **54**

### 5 Tolosa Goxua

Bi tarta

2012ko urriaren 27an  
triangulo plazan



Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: **55**

Parte hartzeko deitu edo idatzi: **902-82 02 40 / txokoa@hitza.info** [harpidedunen kodea, izena, herria, eta zeinekaintzetan parte hartu nahi duzun garbi adierariz] Aste honetako astearte eta asteazken goizean, nahi duzun orduan, Saridunak ostiralean argitaratuko ditugu.